



GOIZA PASA

1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gaztematika sistema publikoaren aholkularitzarekin, udal batzuekin lanean ari da aisialdiko eta denbora libreko jarduerak sustatzeko, eta Irura udal horietako bat da.

Gaztematika, Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udalerrri gehienen artean, haurren, nerabeen eta gazteen sustapenerako sortutako sistema publikoa da. Sarearen helburua, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteei etapa horietan, ahalakik eta modu indibidualenean, garatzeko eta autonomo izateko behar duten laguntza ematea da.


Gaztematikaren barruan, PSZ proiektuak garrantzi handia du herritarren garapenean. Proiektu honek, haurren, nerabeen eta gazteen ekimena eta parte-hartzea bultzatzen ditu Gipuzkoako herri txikietan. Honen helburua, haurren, nerabeen eta gazteen parte-hartzea etengabe eta haurtzarotik helduarora arte sustatzea da, herritartasun aktiboa garatzeko. PSZk, herri bakoitzak bere haur, nerabe eta gazteekin dituen loturak sortu, indartu eta aktibatzea du xede.

Irurako udalak, PSZ proiektuaren barruan ikasturtean zehar ludoteka eta gazteleku zerbitzuak eskaintzen ditu eta uztailean lau astez goiza pasa udaleku irekiak. Goiza pasa, hirutan banatzen da. Alde batetik, 2004-2008 (biak barne) urteen artean jaiotakoak (Gazteleku zerbitzua jasotzen dutenak), bestetik 2009 eta 2015 urteen artean jaiotakoak (ludoteka zerbitzua jasotzen dutenak) eta azkenik 2016-2017 urteetan jaiotakoak (“haurtzaro txikia” deituriko etapan dauden helduenak).

2009tik 2015era (biak barne) eta 2016eta 2017 urteetan jaiotakoei eskaintzen zaien goiza pasak asteka funtzionatzen du eta haurrek nahi duten asteetan eman dezakete izena. Zerbitzuaz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara goza dezakete, nahiz eta irteera egunetan ordutegia aldatu daitekeen (2016-2017 urtekoek ez dute irteerarik egiten). 09:00etatik 10:00etara eskaintzen den zaintza zerbitzua, bertan izen ematen duen orok erabil dezake. Aipatu, adin hauetako haurrak talde ezberdinetan banaturik egoten direla.

2004tik 2008ra (biak barne) jaio bitartekoek astean hirutan jasotzen dute goiza pasa zerbitzua. Hiru egun horietatik bitan irteera izaten dute eta bestean herrian geratzen dira ekintzak eginez. Hauek matrikulatzerako garaian, ez dira asteka matrikulatzen baizik eta irteeretara, modu honetan talde bakarra osatzen dute beti.

Aurten goiza pasa zerbitzua ekainaren 29tik uztailearen 24ra eskainiko da, baina hasiera eta amaiera datak, parte-hartzaileak bezala (jaiotze urtearen arabera), urtez urte aldatzen joaten dira, nahiz eta urtero 4 aste izaten diren. Aipatu ere, ludoteka eta gazteleku zerbitzuak ez bezala, goiza pasan matrikulazioa ordaindu egiten dela.



2. HELBURUAK

- Aisiaz gozatzeko aukera eskaintzea tokiko eskaintza baten bidez.
- Haur eta nerabeen herritartasun sena garatzea eta parte-hartzea bultzatzea
- Sozializatorako, inklusiorako, konpromisorako, garapenerako eta sormenerako espazio bat eskaintzea.
- Beren autonomia eta ahalduntzea garatzeko laguntza eskaintzea
- Baloreetan oinarritutako elkarbizitza sustatzea, konfidantzan, errespetuan, etab.
- berdintasuna bultzatuz, kultura, ideia, ohitura, jarrera, genero, etab ezberdinak errespetatzea.
- Ingurunea, zaindu, errespetatu eta maitatzea.



3. PROTOKOLOAK


3.1. PARTE-HARTZAILEEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO PROTOKOLOA.

DENBORA LIBREA ETA ATSEDENA:

1. Talde bakoitzak bere **erreferentziazko begiraleak** izango ditu. Hauek, beren taldeko parte-hartzaileei buruz jakin beharreko datuen zerrenda izango dute.
2. Erreferentziazko begiraleek bere taldeko partehartzaileak **uneoro kontrolatuta** izan behar dituzte, beraz, kideen kontaketa egingo dute jarduera-aldaketa bakoitzean. Baita ere garraioren batera igo eta jeistean.
3. Denbora libreetan **begiraleak parte-hartzaileekin** egongo dira.
4. **Atsedena baldintza egokiak dauden lekuetan** egingo dira (espazioa, itzala, iturria, komun publikoak ...).
5. Parte-hartzaileek denbora librean erabiliko duten **espazioan mugak** ezarriko dira. Begiraleak espaziotik banatuko dira puntu guztiak eta parte-hartzaile guztiak kontrolatzeko. Parte-hartzaileen kontaketa egingo da atsedenen aurretik eta ondoren.
6. Begirale taldeak, **partaideekin interakzioan** aritu beharko du denbora librean, egon daitezkeen arazoak detektatu eta parte-hartzaileen isolatzea saihesteko.
7. Erabat **debehatuta dago igerilekuan sartzea bainatzeko ordutegitik kanpo** eta begiraleen ikuskapenik gabe.
8. Igerilekua erabili ondoren **itxita** geratuko da
9. Begirale taldeak **botikina emango du** uneoro.
10. Kotxean garraiatzerakoan beharrezko **babes neurriak** hartuko dira.
11. **Telefono estaldura** dagoen lekuetan ibili behar da.
12. Goiza pasako orduetan, begiraleek **debehatuta izango dute sakelako telefonoak edo bestelako gailuak erabiltzea**, goiza pasako ekintza baterako ez bada. Hala ere, mugikorra beti gainean eramango dute, edozein larrialdi gertatuz gero, komunikatu ahal izateko.
13. Inongo kasutan, **begiraleek, ez dute taldea bakarrik utziko**. Halaberrez gertatuz gero, beste begirale edo koordinatzaile bat bilatu beharko du taldearekin geratzeko.
14. Begiraleek eguna bukatzean **begiraleen kuadernoko ebaluazio orria bete** beharko dute (gustora egon diren, ezbeharririk gertatu den, etab)
15. Ostiraletan **koordinazio bilerak** egingo dira.
16. Gaua pasatzeko irteeretan gutxienez **begirale bat guardian** egongo da parte hartzaileak artatua egon daitezzen. Haurrei, jakinaraziko zaie begirale hori non aurki dezaketzen.
17. Gaua pasatzeko irteeretan, **gaueko 00:00etan isiltasuna** egongo da gelan (argiak itzali, ohetik ez direla ateratzen ziurtatu, etab.)

JARDUERAK ETA IRTEERAK:


1. Parte-hartzaileen ongizatea arriskuan jar dezakeen **edozein jarduera bertan behera geratuko da**.
2. Irteeretan, begiraleek **txaleko islatzaile bat** eraman beharko dute identifikaziorako. Gainera, gutxienez **begirale bat jarriko da taldearen mutur bakoitzean** eta gainerakoa taldean zehar modu homogeneoan banatuko da.
3. Jarduera egiteko **instalazio bereziren bat behar izanez gero, prestaketa astean eskatu** beharko da, bi talde elkarrekin ez topatzeko.



4. Jarduerako **materiala goiza pasaren prestaketako astean eskatu** bada material gelan egongo da, bestela begiralea bera arduratu beharko da erosteaz eta tikea koordinatzaileari emateaz.
5. Jarduera bakoitzaren aurretik begiralea arduratuko da **materiala prest edukitzeaz** eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren teknikak eta trebetasunak ezagutzeaz. Jardueraren ondoren, baita ere, materiala jasotzeaz eta espazioa lehen zegoen bezala uzteaz.
6. Jarduera bakoitzaren aurretik, begiraleak **jarduerari buruzko segurtasun-neurriak azalduko** ditu bai eta materialak erabiltzeko arauak ere.
7. Jarduerako **arauak**, jarduteko **protokoloak** eta begiraleek emandako **gomendioak errespetatuko** dira.
8. Begiraleek **ziurtatu** beharko dute **parte-hartzaileek arropa eta oinetako eroak daramatzatela** gauzatuko duten jardueretarako. Baita ere etxetik eguzkitako krema emanda etorri direla eta hala ez bada, hau emateaz arduratuko dira.
9. Beti **lehenetsuna** izango du **adin txikikoaren ongizateak eta segurtasunak**.
10. Begiraleek **ziurtatu** beharko dute **parte-hartzaileak gai izango direla jarduera bakoitzaren erritmoari eusteko**. Aurreikusitako jarduera gehiegizkoa bada parte-hartzailearen batentzat, atsedeen hartzeko eskatuko zaio edo esfortzu fisikoaren karga murriztuko zaio, dagokion begiralearen irizpideen arabera, istripuak, lesioak edo gehiegizko nekea prebenitzeko.
11. Irteeretara joateko erabiltzen diren **garraioetan segurtasun neurri guztiak hartuko** dira eta bertako araudia errespetatuko da (bizikletan joateko kaskoa, autobusean joateko zinturoia, autobusetik lehenengo begiralea jaitsiko da, begiraleak garraioan ez dela ezer geratu zihurtatuko du, etab).

PARTE-HARTZAILE BATEN DESAGERTZE KASUAN:

1. Begiraleren bat bere taldeko **kide bat falta dela ohartzen bada, berehala bere lan taldeari eta koordinatzaileari jakinarazio** dio.
2. Falta den pertsonaren **bilaketa egiteaz koordinatzailea eta begiralea arduratuko** dira
3. Adin txikikoa non dagoen jakin gabe jarraitzen bada, begiralea desagerpenaz ohartu denetik **gehienez 40 minutura larrialdi zerbitzuetara deituko** da.
4. Behin larrialdi zerbitzuetara deituta koordinatzaileak **adin txikikoaren guraso edo tutoreari jakinaraziko** dio.



3.2. JOKABIDE DESEGOKIEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA

Despiste txikien aurrean, **bizikidetzari buruzko araudia gogoraraziko** zaio, kutsu adiskidetsuarekin, jokabide hori zuzentzen saiatzeko.

Jokabide desegokiak, beraien **larritasunaren arabera 3 mailatan banatuko** dira:

-ARINA: Instalazioak ez zaintzea, errespetu falta arinak lagunei eta begiraleei, erabilitako materiala ez zaintzea, etab. Bi abisuko sistema bat ezarriko da kasu horietarako. **Lehenengo abisuan, begiraleak esku-hartze bat** egingo du, jokabideari eta zailtasunari irtenbidea aurkitzeko. **Bigarren abisuan, parte-hartzaileak jarduera utziko du** ezarritako jarraibideak jarraitu ahal izan arte. Hamabost minutu igaro ondoren, parte-hartzailea jarduerara itzuli ahal izango da, jardueraren gidalerroak betetzeko prest dagoenean.

-LARRIA: Errespetu falta larriak lagun eta begiraleenganako, borrokatzea, lapurtzea, iraintzea, mehatxatzea, etab. Maila larrietan koordinatzaileari abisatuko zaio gertatutakoaz eta koordinatzailea eta begiralea egoeraz arduratuko dira. **Bi larritasun maila larri emanez gero, larritasun maila oso larrizat hartuko da** eta maila horretako ondorioak aplikatuko zaizkio.

-OSO LARRIA: Edari alkoholikoen, tabakoaren edo estupefazianteen kontsumoa, kide batenganako jazarpen jarraia, intenzionalki materiala puskatzea, begiraleei edo koordinatzaileari desobedientzia eta kasurik ez egitea, etab. Maila oso larriko falta bat egiteak, parte-hartzaile hori goiza pasa **udaleku irekietatik denbora jakin baterako edo behin betiko kanporatzeko arrazoi** izan daiteke. Kanporatzea dakarren arau haustea eman bada, gurasoei edo tutoreari jakinaraziko zaio.

Edozein jokabide desegoki **begiraleen kuadernoan jakinaraziko** da.

3.3. BEHAR BEREZIAK DITUZTEN PARTE-HARTZAILEEKIN JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA

1. Matrikulazioen izen-emate epea amaitzean, koordinazio taldeak baloratuko du beharrezkoa den goiza pasako **begiraleen kopurua handiagotzea**.
2. Berarekin egongo diren **begirale guztiei** emango zaie behar bereziak dituen **adin txikikoaren berri**.
3. Behar bereziak dituen parte-hartzailearekin dagoen begiraleak, ala eskatzen duten **jarduerak egokitu** egingo ditu.
4. Talde handian **aniztasunaren balioa sustatuko** da, kolektibo osoaren inklusioa lortzeko.
5. **Berdinen arteko laguntza** bultzatuko da.
6. Begirale taldeak **errespetuz eta behar duten arreta osoa eskainiz** jokatuko du parte-hartzaile hauekin.
7. Beharrezkoa bada, parte-hartzaile horiek **instalazioetan, garraioetan, etab. sartzen lehenak izatea lehenetsiko** da.(Gelan, autobusean ...).
8. Berarekin dauden begiralearen zeregina izango da **parte-hartzailearen ongizatea bermatzea**.
9. Izen emate orrian jartzen ez zuen beharren bat topatu bazaio parte-hartzaileari edo babesgabetasun egoera baten zantzuak ikusten badira, **gizarte zerbitzuetan jakinaraziko** da.




3.4. OSASUN INTZIDENTZIETARAKO EDO/ETA LARRIEALDIETARAKO PROTOKOLOA

1. Izen emate orrian, parte-hartzaile bakoitzaren tutoreak zehaztu beharko du parte-hartzaileak alergia, intolerantzia, gaixotasun, etab. duen eta botikaren bat eman behar bazaio noiz eta dosia zenbatekoa den. Baimenik gabe **ez zaio botikarik emango** parte-hartzaileari.
2. Parte-hartzaile bakoitzari bere **botika eman eta gordetzeaz taldeko begirale bat arduratuko da** goiza pasa osoan. Begirale kuadernoan taula bat izango du non eman beharreko dosia eta ordua agertuko diren eta **x** batez egunero eman diola ziurtatu beharko du.
3. Larrialdi bat gertatu bada, lehen sorospenetako **PAS protokoloa** aplikatuko da.
 - a) **Babestu:** biktima eta gu geu babestu sor daitezken arriskuetatik.
 - b) **Abisatu:** Larritasunaren arabera 112ra edo koordinatzaileari abisatu (larritasun maila edozein dela ere koordinatzaileari beti abisatu).
 - c) **Lagundu:** 112ra deitu bada, laguntza espezializatua iristen den bitartean lagundu eta bestela behar duen tratamendua aplikatu (beti ere egin beharrekoaz ezagutzak baditu).
4. **Larrialdi handia ez bada baina arreta medikua behar badu Irurako Osasun Zentrorra** joan.
5. Irurako edo beste nonbaiteko osasun zentrorra joan bada bere **osasun txartelaren fotokopia hartu**.
6. **Larritasun arina bada** eta ez bada adin txikikoa medikuarengana eraman **begiraleak eta koordinatzaileak erabakiko dute guraso edo tutoreari abisatu beharrik dagoen ala ez**.
7. **Larritasun maila handikoa bada, gurasoari jakinarazio** dio koordinatzaileak eta adin txikikoa zein osasun zentrotan dagoen esan.
8. Edozein osasun intzidentzia edo larrialdi **begiraleen kuadernoan jakinaraziko** da.

3.5. GURASOekin EDO TUTOREAREKIN KOMUNIKATZEKO PROTOKOLOA

1. Harremana telefono bidezkoa izango da. Guraso edo tutoreari **telefonoz deituko dio** koordinatzaileak **garrantzitsutzat jotzen duen edozein gertakari jakinarazteko**, osasun-gaiak, integrazio-arazoak, jarrera desagokiak, etab.
2. **Oharretarako, whatsApp aplikazioa** erabiliko da, izen-emate orrian guraso edo tutoreen batek aurkakoa adierazi ezean. Aurkakoa adiraziz gero, oharra paperean emango zaio edo ahos esan haurra jasotzen duenean edo telefonoz deituko zaio.



4. IRIZPIDEAK

4.1. SEGURTASUN IRIZPIDEAK

JOAN ETORRIAK ETA GARRAIOAK

Bideak zeharkatu:

- Bide segurtasunerako **arauak errespetatu**, naiz eta lehentasuna izan, debilena oinezkoa sa, ADI!
- Zebra bideetatik gurutzatzerakoan, alde zurretik **begiratu eta ziurtatu ibilgailuen portaera**. Talde handia bada bat aurrean, bestea atzean eta besteak erdian.
- Semaforoa badago, **inoiz ez pasa gorrian** eta ibilgailuak geratuko direla ziurtatu.
- **Zebra biderik ez badago, leku seguru bat aurkitu**, beti ondo ondo ikusten den lekuetatik.

Espaloi eta pasealekuetan:

- Taldeka joaten bagara, ahal bada **binaka joan** (txikiak badira eskutik emanda), beste erabiltzaileei tarte utziz, korrikarik egin gabe eta erne inor despistatu gabe.
- **Mendiko bidea** (ibilgailuak ibiltzen badira)
- **Begirale bana aurretik eta atzetik**, besterik bada, tartekatu.
- **Haurrak ilaran, banaka edo binaka**.

Garraio publikoa erabiltzean:

- **Geralekuan** dauden bitartean **erne** egon, jolastu gabe, batez ere pilotekin.
- **Haurrak zenbatu**, taldea osatua dagoen ikusi eta erne egon.
- Erne, trena edo **autobusa iristerakoan**, atzeratu eta igotzerakoan, **beti begirale bat lehena igo** eta atzetik haurrak, **azkena beste begiralea**.
- Bidaiatzen den bitartean, lasai joan, **zaratarik atera gabe**.
- **Jeitsi aurretik erne egon eta zenbatu**, inor ez dadila barruan geratu.
- **Trenbideak zeharkatzea sahiestu** alden guztietan, ezinezkoa bada, ondo ikuskatu ingurua gurutzatu aurretik. Erabili lurpeko pasabideak edo beste aukerak ikusi.

EKINTZAK EGITERAKOAN

Mendi, bide eta abar:

- **Ingurua ikuskatu alde zurretik** eta baztertu arriskuak:
- **Altuerak, amildegia, animaliak dauden guneak**, zuek ere **ez igo edo inguratu**, eredu eman.
- **Miatu inguruan** arriskua sor dezaketen tresna, material eta horrelakorik badagoen (makina, sareak, zaborrak, beirak, etab)



Igerilekuak, hondartza:

- **Igeri nork dakien ziurtatu** eta ondo kontrolatu
- **Arauek errespetatu**, txanoa, dutxa (higienea eta bero kolpeak saihesteko), saltoak.
- **Ez lasaitu uretan dauden bitartean**, momentu bat nahikoa da norbait itotzeko.

Bizikletan:

- **Kaskoa erabili** hurrek eta begiraleek, erreferenteak zarete.
- **Kandatua eraman** eta erne ibili.
- Errepideak gurutzatzean, bidegorriko pasua ez bada, **oinezkoen pasotetan hankak lurrera eta bizikleta eskuan**, bestela ez duzue lehentasuna.
- **Gehienez binaka joan** daiteke eta espaloietan joaten bazarete, banaka eta poliki.

Porteriak:

- Erne egon porteriak dauden jolaslekuetan, **ondo lotuak dauden ziurtatu** eta ala eta guztiz ez utzi gainera igotzen.

Eguzkia:

- **Bisera erabili.**
- **Ura edan**, beroaldia bada esan maiz edateko.
- **Babeserako krema eman** behar den guztietan eta behin baino gehiago behar bada.
- Beroaldiak badira, **momentu beroenak saihestu**, aterpera joan edo ekintza lasaiagoak egin.
- **Zorabiatuta sentitzen bada** norbait, **gelditu, eseri eta ura eman**, freskatu gorputza.
- **Sintomak larriagoak badira** (temperatura altua, buruko mina, goitiak, konortea galdu, etab) **medikuarengana eraman edo 112ra deitu.**

Botikina, istripuak eta zaintza beharra:

- Zauri txikiak sendatzeko erabili botikina, baino **inoiz ez eman botikarik. Botikina beti gainean eraman.**
- **Larrialdi handirik gabeko kasuetan Irurako Osasun Zentrora joan. Larria bada 112ra deitu.**
- **Era guztietan koordinatzaileari deitu** gurasoei abisatzeko.



4.2. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Umeekin **beti euskaraz** jardun.
- Umeak aurrean daudenean (beste begiraleekin beti; eta gurasoekin, herriko jendearekin edo beste herrietako jendearekin “ahal” den guztietan).

Egoera batzuen aurrean nola jokatu:


Gerta liteke kontrako egoeraren batekin ere topatzea, eta guk euskaraz egin arren haurrak guregana gaztelaniaz zuzentzea, edo euren artean gaztelaniaz ari direla sumatzea. Egoera horretan ...

-Haurrak txikiak diren kasuetan **EUSLE papera jokatzea dagokizue** begiraleei. Hau da, hurrei ...

- **Euskaraz erantzutea edo ...**
- Taldean daukaten **elkarrizketan parte hartzea euskaraz** hitz eginez; zeharka eurak hizkuntza aldatzea ekar baitezake horrek.

-Haurrak helduagoak direnean, eta arrazoitzeko gaitasuna dutenean, begiraleek **EUSLE papera jokatzeaz gain, hurrekin eta nerabeekin solasaldiak** izan ditzakezue gaztelaniarako joera horren arrazoiak aztertzeko eta egoera hori bideratzen saiatzeko:

- Zergatik duzue gaztelaniaz egiteko joera?
- Prest egongo al zinateke egoera aldatzeko?
- Zer izan daiteke horretarako oztopo?
- Zein izan daiteke aldaketa horretan faktore lagungarria?
- Ba al dakizu eredu zarela beste haur batzuentzat?
- Ba al dakizu gure herria eredu dela gainerako herrienzat?



4.3. BERDINTASUN IRIZPIDEAK

1. Pertsona bakoitzaren banakotasunaren eta berezitasunen arabera, **generotik at egiten den hezkuntza ez-formala eskaini.**
2. **Irizpide sexistak, emakumeei eta gizonei egokitutako rolak, portaerak, jokaerak, balioak, etab. kontuan hartu gabe hezi.**
3. Parte-hartzaile guztiei **aukera berdinak eskaini**, ez hartu kontuan neska ala mutila den.
4. **Parekidetasunean, elkartasunean eta askatasunean oinarritutako balioak** eskaini genero-baldintzapenik gabe.
5. **Haur zein nerabeen arteko desberdintasunezko egoerak detektatu**, haien jokaerak, jarrerak, hizkuntzak, pertzepzioak eta itxaropenak behatuz.
6. **Emakumeen ahalduntzea bultzatu**, emakumeen parte-hartzea sustatuz edota genero-harremnaen eredu tradizionalak zalantzak jarritz.
7. Parekidetasunean, haur eta nerabeen **garapen integralean esku hartu.**
8. Sinesmenak, jokaerak, ohitura sexistak desegin eta **berdintasunean oinarritutako ideiak, jarrerak, harremanak , etab. eraiki.**
9. Gure zerbitzuetan erabil daitekeen **material sexistak sahiestu.**
10. Jarduerak, erantzunkizunak eta ekimenak erabakitzerakoan, esku-hartzeak egiterakoan, protagonismoa eta autoritatea edukitzerakoan, etab. **gizonesko eta emakumezko hezitzaileen artean berdintasunez banatu eta sexu-generoko estereotipoak apurtu.**
11. **Nesken iritziak mutilenak bezain beste baloratzea** eta parte-hartze mistoa bultzatzea.
12. Mutilak eta neskek **sexu jakin bati esleitzen zaizkion jardueretan parte-hartzera bultzatzea.**
13. **Espazioen erabilera kontrolatu**, orekatua eta anitza izan dadila. Nesken espazio eta aktibitateak baloratu.
14. **Taldeko nagusitasuna eta protagonismoa ez duten pertsonak ere kontuan hartzea.**
15. Adibide esterotipaturik ez erabiltzea eta, **adibide gisa neskek lehentasunez hartzea.**
16. **Hizkuntza sexista baztertu.**
17. **Betaurreko moreen begiradarekin jardun.**




5. BARNE ARAUAK

5.1. BEGIRALEEN BARNE ARAUAK:

1. **Ezin izango da** alkoholdun edaririk, substantzia estupefazienterik edo bestelako drogarik **kontsumitu** goiza pasa zerbitzuetan.
2. Langileek **haurrak/nerabeak dauden esparrutik kanpo erre** ahal izango dute, beti ere, hauek ikusten ez dieten lekuetan.
3. Uneoro **hizkera egokia eta errespetuzkoa** erabili beharko da lankideekiko, parte-hartzaileekiko, familiekiko etab.
4. Langileek **errespetuzko jarrera** izan beharko dute gainerako lankideekiko, bai eta parte-hartzaileekiko, familiekiko eta beste erabiltzaile batzuekiko ere. Beraz, debekatuta dago, indarkeriazko edozein jokabide mota, ahozkoa zein fisikoa.
5. Begirale **parte-hartzailearen erreferente** da, beraz, dibertigarria, goxoa, arduratsua, iniziatibaduna, etab. izan
6. Ahal den guztietan **kalean ibili** (ez gela barruan), herriko baliabideak aprobetxatu eta parte-hartzaileekin antolatu eta beraiei ardurak banatu.
7. Ezarritako **ordutegiak, funtzioak eta erantzukizunak bete** beharko ditu.
8. **Ingurunea zainduko** da, garbitasuna bermatuz eta ingurumenean ahalik eta inpaktu gutxien eraginez.
9. **Debekatuta** dago langileen eta parte-hartzaileen **harreman afektibo-sexualak**, baita parte-hartzaileen aurrean langileen arteko harreman mota horien adierazpen publikoa.
10. Baimenduta dago telefono mugikorra erabiltzea, beti ere jardueraren garapenarekin lotuta badago. **Telefono mugikorra langileen aisialdirako baino ez bada ezingo da erabili.**
11. **Debekatuta** dago goiza pasako **edozein argazki edo ikus-entzunezko**, edozein kontu edo **sare sozial pertsonaletan argitaratzea.**
12. Begiraleen **kuadernoak eguna amaitzean material gelan** egon behar dute ebaluaketa beteta (egunero)
13. **Arau hauek ez betetzeak, ondorioak ekar ditzake;** abisu bat jasotzetik kontratua eten eta kaleratua izan arte.

5.2. HAUR ETA NERABEEN BARNE ARAUAK


1. **Debekatuta** dago tabakoa, alkohola eta beste substantzia batzuk **kontsumitzea**, bai eta objektu zorrotzak eta/edo ebakitzaileak erabiltzea.
2. **Gatazkak** parte-hartzaileen komunikazioaren bidez **modu baketsuan eta hitz eginez ebatziko** dira. Entzute aktiboa izango dute begiraleen azalpenen eta/edo ekarpenen aurrean.
3. **Ingurua zaindu** behar da, ordena eta garbitasuna mantendu behar dira, eta elkarbizitzarako arauak errespetatu.
4. **Materiala zaindu** eta behar bezala erabiliko da.
5. Uneoro **hizkera egokia eta errespetuzkoa** erabiliko da begiraleekiko, lagunekiko, etab.
6. **Errespetuzko jarrera** izango dute gainerako kideekiko, begiraleekiko, etab. Beraz, debekatuta dago, indarkeriazko edozein jokabide mota, ahozkoa zein fisikoa.
7. **Ez da onartuko**, genero, gaitasun edo jatorri arrazoiengatik **inor gutxiestea.**



8. **Ordutegiak eta errutinak errespetatuko** dira baita ere jardueretako dinamikak.
9. **Ezin da taldearen dinamika edo instalazioa utzi** begiralearen baimenik gabe.
10. Bakoitzak ekartzen dituen **objektu pertsonalak** (mugikorra, dirua, jolasak, etab), **bere ardurapean** egongo dira eta erabilera on bat emango zaie.
11. Haurrek **ez dute diruaren eta mugikorraren erabilerarik egingo** goiza pasako orduetan.
12. **Begiraleen jarraibideak jarraitu** behar dituzte parte-hartzaileek.
13. **Arauen bat betetzen ez bada**, beharrezko neurriak hartuko dira, eta goiza pasatik kanporatzeko eskubidea izango du udalak.

5.3. GOIZA PASAKO BARNE ARAUAK:

1. Epez kanpo ekarritako izen-emate orriak onartuko dira **baldin eta taldean plazarik bada**. onartua izanez gero, **eguneko 3€ko isuna** aplikatuko da.
2. Izena emate **orria bat eta bakarra** izan behar du familiako (bi (nerabeen zerbitzuan) edo hiru (haurren zerbitzuan) seme-alaba baina gehiago daudenean salbu. kasu hauetan, bi izen emate orri bete eta biak mezu berean bidali).
3. Matrikula orriarekin batera **osasun txartelaren kopia** bidaltzea beharrezkoa da iaz goiza pasan edo ikasturte honetan gaztelekuan izena emanda ez zutenek.
4. **Familia ugariaren agiria** aurkezten ez dutenei, ez zaie hobaria aplikatuko.
5. **Gizarte zerbitzuetako hobaria** jasotzen dutenak, gutxienez asteen lau aldiz etorri beharko dira (Baldin eta ez badute mediku ziurtagiria ekartzen) . Horrela ez bada, hurrengo urtean hobari hau jasotzeko aukera galduko dute.
6. Matrikula epea amaitu ondoren **ez da matrikularen dirurik itzuliko**, baldin eta gaixotasun edo istripu larriagatik ez bada (medikuaren ziurtagiriarekin). Behin matrikulatu ondoren **ezingo da matrikulatutako astez aldatu eta ezta ere luzapenik egin, baldin eta ez bada 2017an jaiotako haurra**.
7. **10:00etarako ateak irekita** egon behar du eta inoiz ezin dute ordua baino lehenago irten.
8. Parte hartzailearen batek goiza pasan dagoen bitartean lehenago irten behar badu, gurasoak edo tutoreak **ardura parte bete** behar du.
9. Goiza pasako orduetan parte-hartzaileei **ez zaie botikarrik emango** gurasoak edo tutoreak ez badu baimena bete.
10. Eguraldia dela eta haurren **ekintzak alda daitezke**. Aste horretan irteera gauzatuko ez balitz, herrian, goiza pasako zerbitzua izango dute irteerako ordutegia mantenduz.
11. Nerabeen irteeretan eguraldia edo beste arrazoi batzuk direla medio **irteera bertan behera geratzen bada, herrian goiza pasako zerbitzua izango dute** irteerako ordutegia mantenduz. 10€ baina gutxiagoko kostua duten irteeretan **ez da dirua itzuliko**.
12. Nerabeen ekintzetan **gutxienez 10 lagunek** parte hartu beharko dute taldea osatzeko. Ez da gehiengo parte-hartzaileen mugarik egongo.
13. **Puntualitatea** eskatzen da. Irteera egunetan **berandu datorrenari ez zaio itzarongo**.
14. **HH eta LH1eko** haurren kasuan, begiraleak ziurtatu beharko du guraso, tutore, anai-arreba edo familiako kideren batekin joan dela haurra. **Familiakoa ez den norbait bila etorri behar duen kasuetan, guraso edo tutoreak ardura parte bete** beharko du lehenago.



15. **LH2tik** (hau barne) aurrerako parte-hartzaileei goiza pasatik **etxera bakarrik joaten utziko zaie** (gurasoak edo tutoreak aurkakorik adierazi ezean).
16. Udalekuetako **hizkuntza euskara** izango da.
17. **Iruran errolatutakoek lehentasun osoa** izango dute.
18. Talde bakoitzean **sexu ezberdinetako begiraleak jarriko dira** (ahal den heinean).
19. **Ez dira ospakizun erlijiosoak egingo.**